



Kubako tabernia

Berrogeitamar urtetik gora dakoin oñatiarrentzat ondo ezaguna izan zan denbora batian **Kubako tabernia**. Ama Bakardadekuaren kalia eguen, Mendiko kalerako sarreran eta Portuko zubixaren onduan. Orain **Xauen** izeneko dendia dago lokal horretan. Fan zan gizaldixaren azken aldera jarritako tabernia zan eta, izenak erakusten doskun lez, 1870 inguruan Kubako gerran ibilitako txantxikuar batek zabaldu eben: **Frantzisko Arregik**, hain zuzen. Herritarren artian estimaziño haundixa eukan ardandegi honek; makiña bat karretero, banastagin, ultzein, errementari, baserritar nahiz kaletar alkarketan zan bertan, kuartillo bat eranaz, tertulixan jarduteko. Orduko bezeruak asmautako esaera xeble bat be geratu xakun: Makalena eta Zubibarri aldiari ultzein eta errementari ugari izan zan urte askuan; ultzeiñak lanari itxi otzaiñian, forjarixak hasi ziran Zufirianian, Onraitianian eta beste lantegi batzuetan; **Tetuango** errementarixak esaten xaten, Marruekoeko gerra-aldi batian auzo horretan lanian ziharduen gazte-pillatxua Afrikara eruan ebeillakodedo. Harrezkero Tetuan deittu izan xako paraje horri. Ba, forjarixok, egun guztian sutegixan berotu ondoren, trago bat jotera taberna honetara etorten ziranian, zera botaten ebein: *Gu egunero faten gaittuk Tetuanetik Kubara, itsasua pasau barik.*

Argazkixan ezkerretan, zaragixa eskuetan dakola, ikusten dogun neska gaztia **Leona Arregi Arregi** da. Lehen aittatu dan **Frantzisko kubatarraren** eta **Teresa Arregiren** alabia, 1885ian jaixua eta gerora **Pedro Aiastui**, Askasubiko semiarekin ezkonduko zana. Eztakigu zein dan eskumako aldiari begira dakon neskatillatxua; bere marmitta, pitxartxo eta abarrekin esne-billa edota beste errekadu batzuetara doiala emuten dau. Dotoriak dira, benetan, emakume bixen soiñeko luziak eta orrazkera apaiñak. Eskumako atia tabernarako sarrera zan eta ezkerrealdian eskaparate txiki bat eguen. Aldamenian, Goiko Torrerrako bidiaz bestaldetik agiri dan pareta-zati-xa **Kortabarriren** etxe zaharrari zegokixon. Arregitarak baiño beranduago **Biaindarrak** egon ziran tabernari Kubakuan: **Agapito, Asunzion, Daniel** e. a., 1958ko San Migeletan tabernia itxi zan arte. Geroztik **Urrutianeko** dendia ipiñi ebein eta azkenengo urte honeittan Xauen dago. Fotografixiak 90 bat urte eukiko dau, seguru asko, eta beheratxuago, plazan, bizi zan **Martin Zuluetak** ataratakua da.

J. E.

Argazkixa M^a Angeles Heredia eta Xabier Zelaiaren bittartzez eskuratu dogu eta argibidiak M^a Luisa, Teresa eta Karmen Aiastuik eta Lurdes eta M^a Karmen Biainek emun doskue. Milla esker guztioiri!